

# Emakumeen aldeko ekintza positiboen analisia

**Mertxe Larrañaga Sarriegi**  
EHUko irakaslea

Aukera-berdintasuna ia herri guztiek onartzen duten hastapena da eta sexuaren araberako diskriminazioa legez debekatuta dago. Hala ere, eguneroko errealitateak erakusten digu emakumeek gizonek baino aukera gutxiago dituztela arlo askotan, eta bereziki ekonomikoan. Artikulu honen helburua emakumeen aldeko ekintza positiboak aztertzea da. Ikusiko dugu noiz jartzen diren martxan eta zergatik. Geldituko gara neurri horien aldekoek eta aurkakoek ematen dituzten arrazoietan. Saiatuko gara berdintasunerako politiken ibilbidean aurkitutako arazoak azpimarratzen ere. EAEko emakumeen aldeko politikak ere laburtuko ditugu baina horretarako Europara jotzea ezinbestekoa izango zaigu. Azkenik, neurri horien lorpen eta mugak azaltzen ahaleginduko gara.

The principle of equal opportunities is broadly accepted in most countries and gender discrimination is forbidden by law. Nevertheless, the everyday life shows that women have much less opportunities than men in most fields, including the economic one. This article's main aim is to show the positive actions that are in favour of women. We will see when and why they are put into gear. We will delay over the reasons adduced by supporters and opponents of these actions. We'll try also to underline the problems about the equality politics that have been found in there gait. We will sum up the politics that are in favour of women in Basque Country, but it will be necessary to refer to Europe. Finally we'll endeavour to clarify the succes and the limitations of those actions.

## 1. Berdintasunaren bidea zabaltzen

Emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunaren hastapena finkatu zuen lehen nazioarteko dokumentua Nazio Batuen Karta izan zen 1945. urtean, baina, dudarik gabe, gai honetan emandako aurrerapauso nabarmena Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala izan zen 1948an. Giza eskubideak liberalismoaren eskutik jaio ziren eta eskubide hauen unibertsaltasun kontzeptuaren oinarriak 1789ko Iraultza Frantsesean aurki daitezke, ordutik aurrera gizarte modernoak berdintasunaren hastapena onartzen hasten baitira. Baina berdintasun teorikoa murriztapen batzuekin antolatua izan zen, klase soziala, jabetza eta, nola ez, sexu-murriztapenekin alegia. Ez dirudi, bada, astakeria esaten dugunik eskubideen unibertsaltasuna fikzio hutsa zela baieztatzen dugunean eta ez ziren emakumeak baztertuta geratu ziren bakarrak, beste hainbeste gertatu baitzen, esate baterako, txiroekin. Azken finean, eskubideak zituztenak gizonezkoak, zuriak, mendebaldarrak eta ondarearen jabeak ziren batez ere.

1946. urtean Nazio Batuen Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordea osatu zen eta bere eginkizunen artean emakumezkoen eskubide politiko eta sozialak garbi azaltzea dago. Horretarako, ezinbestekoa da mundu osoan haien aurkako diskriminazio-erak ezagutzea eta aztertzea. Adierazpen publiko honen ondoren eta hirurogeita hamarreko hamarkada arte mendebaldeko ekonomietan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortuta zegoela baieztatu zen. Baina garbi dago gaur egun ere, hogeigarren mendearen amaieran, gizarte guztietan ezberdintasunak egon badaudela, bai arlo pribatuan eta baita publikoan ere, eta hori ikusteko datu ekonomiko batzuk begiratzea besterik ez dago.

Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko bigarren Denbora-Aurrekontuen Inkestaren arabera 1998an emakumeek astean 44 ordu eta 56 minutuko lana egiten badute, gizonezkoen lan-denbora 35 ordu eta 26 minutukoa da, hau da, emakumeek gizonezkoek baino ordubete eta 22 minutu lan gehiago egiten dute egunero, eta hori oporraldiak kontutan hartzeke. Baina emakumeek gizonek baino lan gehiago egitea ez da gure gizartearen bitxikeria, horrela gertatzen baita gainontzeko herrialde garatuetan eta are gehiago azpigaratuetan. Baina emakumeek egindako lan gehiena ordain gabeko lana den bitartean, gizonezkoen kasuan alderantzizkoa gertatzen da, hau da, egindako lana, batez ere, merkatuko lana da. Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeek egindako lan guztiaren % 63 etxeko lana den bitartean gizonezkoen kasuan bere lanaren % 72 ordaindutako lana da, eta ez dugu ahaztu behar independentzia ekonomikoa eta prestigio soziala ematen duen lana merkatukoa dela.

Azpimarragarria da emakumeek Euskal Autonomia Erkidegoko bizimodua eta ongizate-maila mantentzeko beharrezkoa den lan guztiaren % 56aren ardura badute ere, beraiei dagokiela bakarrik merkatuko lanaren % 39 eta berriz ordain gabeko lanaren ia hiru laurdenak, konkretuki % 74. Nabarmena da, bada, lana oso ezberdin banatuta dagoela gizon eta emakumeen artean, hau da, lanaren zatiketa sexualak, aspaldiko kontua bada ere, gaur egun bizirik dirauela emakumearen kalterako. Noski, emakumeek famili barruko lanaren ardura izateak erabat baldintzatzen du haien partaidetza lan-merkatuan eta parte-hartze hau, herrialde guztietan, gizonezkoena baino baxuagoa da. Euskal Autonomia Erkidegoan 16 urtetik gorako gizonezkoen

% 66 sartuta dago lan-merkatuan, nahiz lanean nahiz lan bila; emakumezkoen kasuan, ordea, jarduera-tasa % 41ekoa besterik ez da. Gainera, kontuan hartzen badugu emakumeen langabezi tasa % 26ra iristen dela, harrigarria badirudi ere, 1998. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan ehun emakumetik bakar-bakarrik hogeita hamarrek merkatuan lan egin zutela erakusten du horrek.

Halaber, ez da ahaztu behar ia edonon denbora partzialeko enplegua batez ere enplegu femeninoa dela, ez eta ia edonon emakumeek gizonezkoek baino gutxiago kobratzen dutela ere, % 25 gutxiago Espainiako azken datuen arabera<sup>1</sup>. Alokairu baxuago horien arrazoiak asko izan daitezke, baina, zalantzarik gabe, kualifikazio-sistemak zerikusi nabarmena du zeren eta "lan berdinatik" jasotako alokairuak aztertzen ditugunean, gizon eta emakumeen arteko diferentziak ia desagertu egiten dira, hau da, emakumeek gutxiago irabazten dute gizonek baino kualifikazio baxuagoko lanak egiten dituztelako. Gertatzen dena da gaur batzuek, gizonek, eta besteek, emakumeek, ez dituztela lan berdinak egiten, enplegua oso zatituta dagoelako sexuaren arabera eta askotan nahiko izaten da lanpostu batean emakumea aritzea, lanpostua femeninoa izatea, kualifikazio-maila baxuagoa esleitzeko.

Ezberdintasunak jarraitzen zuela ikusirik, berdintasunaren kontzeptu bikoitza zabaltzen hasi zen: alde batetik, berdintasun formala eta, bestetik, berdintasun errealarena. Estatu Sozialen legerietan bi esanahi horiek jasota daudenez, botere publikoak "berdinei tratu berdina" ematera behartuta dauden bezala, "ezberdinei tratu ezberdina" ematera ere behartuta daude. Sarritan egoera diferentean aurkitzen direnei neurri berdinak itsu-itsu aplikatzen bazaizkie, bidegabekeria egin daiteke. Noski, ezberdintasunak onargarriak dira baldin eta desfaboratuenen aldekoak badira. Hastapen horretan aurkitzen da diskriminazio positiboaren oinarri teorikoa.

Eta ezberdintasunek jarraitzen zutela ikusirik, aukera-berdintasunaren kontzeptua ere zabaltzen hasi zen. Aukera-berdintasunarekin zatiketa sozialaren ondorio negatiboak indarrak gabe uztea lortu nahi da, pertsona guztiak hasieratik egoera berdinean egon daitezen, legeak emandako eskubideak eskuratzeko orduan guztiak aukera berdinak eduki ahal izateko. Eta hori egitean, zeharo hankaz gora jarri zen berdintasun formala berdintasun erreal lortzeko nahikoa zelako ideia.

Aukera-berdintasunerako politiken helburua sexuen arteko berdintasuna da, hau da, emakumezkoek eta gizonezkoek eskubide berdinak izatea praktikan, guztiok arlo publikoan parte hartzeko aukera berdinak izatea, aukera berdinak izatea bai ordaindutako lanean, bai kulturean, bai politikan parte hartzeko orduan. Behin aukera berdinen irizpidea jarri eta gero, Administrazioari dagokio baldintza berdinen bermea, batez ere traba legal guztiak ezabatuz.

Baina sarritan gertatu ohi dena zera izan da, emakumeek ezin izan dituztela legeek ematen zizkieten aukerak erabili eta ezberdintasunak mantendu egin direla. Eta hori horrela da aukera-berdintasunak ez dakarrelako nahitaz eta automatikoki emaitzen berdintasuna. Are gehiago, gizarte ezberdinak nahiz eta

---

1. *Encuesta de Salarios en la Industria y en los Servicios* 1998, INE.

berdintasuna aldarrikatu, ezberdintasuna birproduzitzen dutela egiaztatu da. Hasierako egoera ezberdina baldin bada, ez da nahikoa izango berdintasunaren legea aplikatzea, urrunago joan beharra egongo da, ekintza positiboetara jo beharko da.

Nahiz eta apaltasunez ekintza positiboaz hitz egiten den, errealitatean diskriminazio positiboaz ari gara, ekintza hauekin talde berezien aldeko neurri bereziak onartzen baitira, talde hauek dituzten ezberdintasunekin amaitzearren eta arlo guztietan aukera berdinak izatearren. Orduan emakumeen alde ekintza positiboa martxan jartzean berauen aldeko tratua ezberdina martxan jartzen da; eta azken helburua normatiboki eta formalki aukera-berdintasuna lortzea da.

Ekintza positibo hitzaren jatorria Estatu Batuetan aurkitzen da. Baiezko ekintzak (*affirmative action*) edo ekintza positiboak (*positive action*) 1965 urtean onartu ziren Estatu Batuetako legerian. Estatu Batuetan diskriminazio positiboen neurrientzako atea Eskubide Zibilen aldeko Legeak (*Civil Rights Act*) zabaldu zituen eta, hasieran bakarrik beltzen aldeko neurriak onartu baziren ere, 1967tik aurrera emakumezkoen aldekoak ere aplikatzen hasi ziren.

Ekintza positiboez hitz egiteko orduan, Nazio Batuen Erakundeak 1979. urtean onartutako Emakumeen aurkako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatze Hitzarmena (CEDAW) aipatzea derrigorrezkoa da. Zalantzarik gabe, hitzarmen hori gertaera gogoangarria izan da emakumeen historia juridikoan eta bere ezaugarri garrantzitsuena unibertsaltasuna da, bereizkeria egon daiteken arlo guztietara zabaltzen baita, arlo politikora, sozialera, ekonomikora eta kulturalera. CEDAW emakumeen nazioarteko eskubideen karta bezala irakur daiteke. Hitzarmen hori berresten duten herrialdeek diskriminazio positiboak ez doazela bereizkeria ezaren aurka onartzen dute, baldin eta diskriminazio hauek denboraldi baterako badira eta berdintasuna lortzeko asmoarekin ezartzen badira, noski. Eta onartzen dute, halaber, neurri bereziak hartu eta hartzen jarraitu behar dela aukera eta tratua berdina lortu arte.

Nazio Batuen Hitzarmena onartu ondoren, aukera-berdintasunerako politikak martxan jartzen joan dira Europako Batasunean, hainbat estatutan eta, noski, baita Euskal Autonomia Erkidegoan ere. Aurrerapausoak handiak izan diren arren, politika horien gaurkotetasunak oraindik ere zeregin asko geratzen dela erakusten digu. Eta hori horrela da berdintasunari mailak jartzeak ez daukalako zentzu handirik. Gaurko gizarteetan oso zaila dirudi emakumeen berdintasunerako ituna haustea, baina ituna ziurtzat jotzean lana egina, eskaerak lortuak eta helburuak beteak dauden ideia zabaltzeko arriskua dago.

Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako politiketan oso kontuan eduki behar dira egon diren eta oraindik dauden rol sexualak zeren eta, sarritan, berdintasuna emakumeak funtzio maskulinoetara sartzeari bezala ulertu da, kontuan hartzeke eguneroko ardurak, ardura familiarrak, sexuen artean era kolektibo eta solidarioan konpondu behar direla. Gaur guztiz beharrezkoa da emakumeen partaidetza bultzatzea arlo publikoan, hala nola gizonezkoen parte-hartzea bultzatzea familiaren barnean. Horretarako, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko erlazioa aldatu beharra dago, bi esparru horiek interdependentek eta osagarriak bezala ikustera iritsi behar dugu, gizarteak biek garrantzi berdina

dutela sinestera ailegatu behar du eta hau lortzeko lehen pausoa rolek duten balorazio soziala aldatzea izan daiteke, esate baterako.

## **2. Ekintza positiboek buruzko gatazka**

Gizarteko talde desfaboratuenen aldeko lehentasunezko tratua baditu defendatzaileak, baina aurkakoak ere baditu eta azken hauen artean ekintza positiboak makina bat errezelo sortzen du. Pertsona edo talde batzuek hasierako abantailak izatea ez du ia inork ondo ikusten eta mundu guztiak onartzen du zerbait egin behar dela aurretiko ezberdintasun horiek orekatzeko. Arazoa, neurri hauen aurkakoen ustez, esku-hartze publikoaren mugetan eta irizpideetan dago, tratua ezberdinak gehiegi zabaltzeak taldeen arteko borroka ekar baitezake. Hori gure gizartean, nortasunik gabeko talde ugari osatutako gizartean, normala litzateke, baliabideak mugatuak direlako. Baina zer antolaketa, zer borroka-ahalmen espero daiteke talde horien aldetik ez badute nortasunik, ez badira era naturalean sortu? Borroka-arriskua erreala al da ala beldurra eta kezka sortzeko besterik ez da esaten? Arrazoizkoa al da benetan bake soziala horrelako huskeriagatik kolokan jar daitekeela uste izatea?

Politika horien aurkako arrazoi sendoenak meritokrazia goraiatzeko dutenak dira eta pentsamolde liberal klasikoa azaltzen dute. Ikuspuntu horretatik bidezkoa da aukera-berdintasunez hitz egitea konkurrentzia libre eta gizabanakoaren aukerak oztokatzen ez diren bitartean. Beste era batera esanda, talde baztertuentzako bizigarriek ez dute inoiz pertsona ezegokiei adre emateko balio behar eta ezta merezi dutenen adre balaztatzeko ere. Hori esatean, gure gizartean beti erabiltzen diren aukera-irizpideak zuzenak direla eta balio kulturalen eraginetik libre aurkitzen direla dirudi eta ekintza positiboek hain idilikoa den egoera oztokatzeko besterik ez dutela balio ematen du. Ahaztu egiten da sarritan balorazio-faktoreak erabiltzen direla ez kualifikazio-mailarik onena duten hautagaiak baizik eta gure antzekoenak diren pertsonak aukeratzeko. Ahaztu egiten da, halaber, emakumezkoen bazterketa gizonezkoen mesederako izan den diskriminazio positibo oso indartsu eta oso luze baten ondorio gisa ikus daitekeela. Eta ez da kontuan hartzen mende asko iraun duen "diskriminazio positibo" horri esker gizarte gehienetan gizonezkoek monopolizatu dituztela botere eta jardura sozial gehienak.

Merituak azpimarratzen dituzten arrazoiaren aurrean justizia sozialaren arrazoiak ipin daiteke, hau da, genero-berdintasuna lortzea kasu guztietan pertsona kualifikatuena saritzea baino helburu garrantzitsuagoa dela argudia daiteke. Behar bada, horrela ez dira beti era darwinistan hoberenak aukeratzeko, baina gizartean hala-holakoentzat ere tokia egon behar da. Ez gaitzean, bada hain elitista izan emakumeak tartean direnean. Bestalde, "kristalezko sabaia"ren existentziak jakinarazten digu zenbat eta altuagoa izan lehiatzen den postua prestigio eta botereari dagokionez, orduan eta garrantzi txikiagoa izaten duela kualifikazioak eta handiagoa arrazoi estrakurrikularrak.

Neurri horien kritikoekin jarraituz, hauek gizakia ez dela existitzen baieztatzen dute politika sozialen tresna bihurtzen delako. Eta ez da zuzena inork bere eskubide pertsonalak murriztuta ikustea nahiz eta tradizionalki desfaboratua izan den talde baten onerako izan. Talde sozialak gizakia zapaldu egiten du eta inork

ezingo du eskatu aukera-prozesu batean talde bateko kide gisa ez ikustea. Gertatzen dena da gizakiekin bakarrik gizakiez osatutako gizartea lortzen dela eta horrelakoetan boterea beti indartsuenen, aberatsenen eskuetan egoten da, Estatu indartsuenen interesak defendatzeko tresna hutsa bihurtzen delarik. Egia da, bai, ez garela talde edo elkarte bateko apendizak hutsak, baina ez da komeni ahaztea gure gizartean pertsona asko diskriminatzen direla talde bateko partaide izateagatik. Eta hori gainditu nahi bada, lana talde-ikuspuntutik egin beharko da.

Ekintza positiboen kritikoek garbi dute diskriminazio-neurriek iraupen oso mugatua izan behar dutela. Gertatzen dena da neurri horien behin-behinekotasuna mundu guztiak onartzen duela, inork ez duela zalantzan jartzen desagertu beharko direla ezberdintasunak desagertutakoan. Arazoa da kritikoek ustez ezberdintasunak ez direla inoiz desagertuko, emaitzen berdintasuna ez dela inoiz lortuko. Are gehiago, beraientzat berdintasun hori, izatez, ez da interesgarria ere, horrela trebezia zigortzen baita eta hori ezin da inola ere gertatu, zeren eta beraientzat meritua eta ahalegina baitira balio behar duten irizpide bakarrak.

### **3. Sexuen arteko berdintasunerako politika publikoak**

Emakumeei zuzendutako politikei, emakumeentzako politikak, genero-politikak, aukera-berdintasunerako politikak eta, azkenaldian, ekintza positiboen politikak esan ohi zaie. Noski, politika horiek aldatzen joan dira denborarekin eta gure inguruko herrialde gehienetan ezarpen progresiboa izan dute.

Politika publikoen analistek politika bakoitzaren bizitzan hainbat sasoi bereizten dituzte, nahiz eta ia guztiek sasoi bakoitza ezin dela aparte aztertu onartzen duten; hau da, etapa bat ulertzeko nahitaez besteak kontuan hartu behar direla uste dute. Orokorri bost sasoi bereizten dira: arazoa izendatzea, konponbideak ematea, erabakiak hartzea, martxan jartzea eta, azkenik, ebaluazioa egitea.

Sexuen berdintasunerako politiken kasuan arazo handienak lehen eta azken etapen sortzen dira. Botere publikoek gai politiko baten aurrean hiru aukera dituzte. Lehenik eta behin, gaia garrantzirik gabekoa dela kontsidera dezakete eta orduan ez dute gai-zerrendan edo agenda politikoan sartuko. Bigarrenik, kontuan har dezakete, gai-zerrendan sar dezakete, baina gaiari buruzko benetako politikarik martxan jartzeke. Hori horrela balitz, gaiak agendatik desagertuz bukatuko luke. Eta, hirugarrenik, gaia aintzakotzat hartu, gai-zerrendan sartu eta berari buruzko ekintzak martxan jar ditzakete.

Beti politika publikoak arazo baten ondoren sortzen direla suposa daiteke. Noski, gizarteko alderdiren bat ez bada arazo gisa definitzen inoiz garrantzitsua izango, ez da sekula gai-zerrenda politikoan sartuko eta ezta konponbideak ere ez dira proposatuko. Arazo politikoa egoteko, aldaketa-desioak eskaera politikoetan definitu beharko dira. Edozein talde antolatuk egin dezake eskaera politikoa, eta politika publikoa sortarazi. Baina botere publikoek ez dituzte eskaera guztiak aintzakotzat hartzen. Eta horixe da gai batek eta bereziki sexuen arteko berdintasunaren gaiak duen arazo inportanteenetarikoa politika publiko bihurtzeko orduan, gai-zerrendan sartzea, hain zuzen ere.

Orain dela ez hainbeste denbora emakumezkoen arazoak ez ziren arazo seriotzat hartzen. Emakumeen gauzez hitz egitea, emakumeen gaiez aritzea lehen etapa prepolitiko hori betetzeko guttiz beharrezkoa da eta Europako mendebaldeko herrialde gehienetan betetzat ematen da berrogeita hamarreko hamarkadatik aurrera. Baina hirurogeiko hamarkadan oraindik emakumeen tokia etxean aurkitzen zela uste zen, eta politika publikoek ideia hori garatzen zuten inplizituki. Gainera, herrialde askotako gobernuen ustetan emakumeek nahiko eskubide lortuak zituztenez eta gizonezkoen nahiko parera iritsiak zirenez, ez zegoen "emakumeen arazoaz" zertan esku hartu beharrik.

Gaur egun gauzak, zorionez, erabat aldatuta daude eta emakumeek jasaten duten diskriminazioari aurre egiteko parte-hartze publikoa nahiko orokortuta dago. Noski, jakina da politika guztiek ez dutela garrantzi berdina. Badaude funtsezkoak direnak, baina badaude sinbolikoak besterik ez direnak ere, eta, maiz, sexuen arteko berdintasunerako politikak bigarren mota honetakoak izan dira. Dena den, onartu beharra dago berdintasunerako politikak historikoki politika erretoriko gisa jaio baziren ere, denborarekin funtsezko politika bilakatu direla hainbat lekutan.

Orokorki, berdintasunerako planak garatzeko erabili ohi diren tresnak Emakumeen Aukera Berdintasunerako Planak, Ekintza Positiboen Planak eta antzekoak izan dira. Ia beti plan horiek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko bereziki sortutako erakunde edo instituzioek landuak izaten dira. Erakunde horiek ugaltzen hasi ziren batez ere Mexikon 1975an Emakumei buruzko Nazio Batuen Lehen Konferentzia egin eta gero.

Berdintasun-politikek aurkitzen duten arazo larrienetariko bat ebaluazioarena da. Baina politika industrial, errenta-politika edo tradizio luzea duten politikek berdintasun-politikek agendarako bidean aurkitutako oztoporik eduki ez duten arren, esan beharra dago ebaluazioaren arazoa guztien arazoa dela. Politika eta programen ebaluazioa, nahiz eta oso garrantzitsua izan adituen arabera, orain arte nahiko gutxi garatu den fasea da, eta ebaluazio-metodo egokiez dauden ezadostasunak eta kontraesanak ez dira makalak.

Egun, guttiz ezinezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoko berdintasun-politiken azterketari ekitea Europako Batasun mailan egin dena kontuan hartzeke, batez ere azken hamarkadan Europaren eraikuntzan emandako aurrerapausoak ikusita. Ukaezina da orain dela gutxi politika domestikoak zirenen erabakigunea gaur egun Bruselan aurkitzen dela.

Bereizkeriarik ezaren hastapena Erromako Itunean bertan finkatuta geratu zen 1957an, baina Europako Batasuneko itun sortzailearen filosofia neoliberalarekin bat eginez merkatuaren mekanismoan konfidantza osoa jartzen zen eta suposatzen zen merkatuaren funtzionamenduak lan-eskuaren bizitza eta lan-baldintzen hobekuntza ekarriko zuela eta honekin berdintasunera iritsi ahal izango zela. Ez dirudi bada Europako Ekonomi Elkarteko sei herrialde sortzaileetako agintariak oso kontzientek zirenik ituna sinatzean integrazio ekonomiko eta politikoari buruzko artikuluen artean sexuen arteko berdintasun-eskaerak iradokiko zituen klausula bat izkutatzen zenik, 119. artikulua hain zuzen ere. Artikulu horren arabera, gizonezkoek eta emakumezkoek lan berdinatagatik alokairu berdina jaso behar dutela onartzen zuten Estatu partaideek.

Genero arloan Europako benetako jarduera hirurogeiko urteetan hasi eta hirurogeita hamarreko hamarkadan bizkortu zen. Europako Batzordearen jarrera-aldaketa bultzatu zuten faktoreen artean Frances Gardinerrek honako hauek aipatzen ditu: 1968ko Pariseko istiluak, emakumeen mugimenduaren bigarren boladaren indarra, De Gaulle bezalako agintari zaharren desagerpena eta 1973an Elkartearen lehen zabalkuntzaren ondorioak, hau da, Erresuma Batua, Irlanda eta Danimarkaren atxikimenduak.

Aldaketa horren lehen seinalea 1974. urtean agertu zen, Elkarteko Kontseiluak Ekintza Sozialerako Programari buruzko Erabakia hartu zuenean. Erabaki horretan gizon eta emakumeen arteko berdintasunari enpleguan, lanbide-heziketan eta lan-baldintzetan lehentasuna ematen zaio. Orduetik aurrera, Arteztarau, Gomendio eta Erabaki ugari hartu da eta hauen artean aipagarriak dira 1976ko 76/207 Arteztarua eta 1984ko 84/635 Gomendioa ekintza positiboak egiten duten erreferentzia garbiagatik.

Arteztarau, Gomendio eta Erabaki horiek guztiak Emakumeen aldeko Aukera Berdintasunerako lau Ekintza Programetan izan dute isla. Lehena 1982-1985 epealdian aplikatu zen, bigarrena 1986-1990 bitartean, hirugarrena 1991-1995 urteetarako egin zen eta laugarrena eta azkena 1996-2000 urtealdian egiten ari da. Oro har, plan horien helburuak honako hauek dira: berdintasun-legeak egokitzea eta aplikatzea, ekintza positiboak martxan jartzea arlo ezberdinetan, arazo larriak dituzten emakumeen aldeko baliabideak eta zerbitzuak garatzea, emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa handitzea eta familiako erantzukizunen banaketa berdina bultzatzea.

Azken programa europarraren berrikuntza aipagarriena zeharkakotasunaren hastapenaren onarpena da eta beronen arabera generoaren ikuspuntua, gizon eta emakumeen berezitasunak, kontuan hartzen hasi dira Estatuetak eta Europako Batasuneko programa eta politika diferentzetan nahiz nazioarteko eztabaida eta foroetan. Hastapen hori onartzearen arrazoia ordurarte aplikatutako ekintzen emaitza mugatuetan eta politika sozial europarraren koordinazio falta nabarmenean aurkitzen da. Halaber, ezin dugu ahaztu aukera-berdintasunerako politikak gainontzeko jarduerekin inolako loturarik gabeko politika bilakatu zela eta horrela "emakumeen gauza" bihurtzeko arriskua erreala zela.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Euskadiko Autonomia Estatutuko bederatzigarren artikulua, pertsona eta talde sozialen arteko berdintasuna azpimarratzeaz gain, botere publikoek, bere konpetentziaren arloan, diferentziak gainditzeko eta berdintasun erreala lortzeko neurri egokiak hartu beharko dituztela dio. Eta, orobat, botere publikoei dagokie bizitza politikoan, kulturean, sozialean eta ekonomikoan hiritar guztien partaidetza erraztea eta, horretarako, emakumeen parte-hartzea bultzatzen saiatu beharko dira.

Emakunde dagoeneko Emakumeentzako Ekintza Positiboan hiru Plan landu ditu, lehena 1991-1994 urteetarako, bigarrena 1995-1998 epealdirako eta hirugarrena 1999-2003 bitartean garatuko dena. Hasi berria den legegintzaldi honetan martxan jarriko den planean zeharkakotasunaren hastapena onartzen da Nazio Batuen Erakundearen Emakumei buruzko Pekingo Konferentziaren irizpideak jarraituz eta berdintasunerako azken programa europarra eredutzat hartuz.



Azpinarragarria da, halaber, EAEko hainbat udaletan Aukera Berdintasunerako Udal Planak onartu izana. Hala, 1999ko bukaera arte emakumeen aldeko programak martxan zituzten herriak hamar ziren: Donostia, Hondarribia, Arrasate, Eibar, Bilbo, Ermua, Santurtzi, Getxo, Gordexola eta Berriz. Noski, Udal Administrazioaren eskuduntza oso mugatua denez ez da asko izango haiek egin dezaketena gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzeko. Baina esan beharra dago herrialde batzuetan, esate baterako Erresuma Batuan, ekintza positiboetan udalak izan direla aitzindariak hiritarrek in duten hurbiltasunagatik. Logikoa den bezala, EAEko udal-planetakoko helburu garrantzitsuenetariko bat udaletxearen barnean berdintasuna bultzatzeko politika aktiboa garatzea da.

#### **4. Aukera-berdintasunerako politiken lorpenak eta mugak**

Sexuen arteko berdintasunean emandako aurrerakuntzez hainbat iritzi daude. Dena den, XXI. mendea hastear dagoenean, emakumeei buruzko konferentzia bat baino gehiago egin ondoren, berdintasunerako ehunka plan martxan jarri eta gero, eta emakumeen aldeko makina bat arteztarau, ebazpen, gomendio eta hitzarmen onartu arren, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunek oso sakonak izaten jarraitzen dute maila guztietan eta, noski, baita maila ekonomikoan ere. Hori dela eta, gehienez aukera-berdintasunerako politiken lorpen partzialez hitz egin dezakegu. Hori bai, gizartearen emakumeen diskriminazioaz lortu den sentsibilizazioa handia da. Oro har, aurrerapausuak oso garrantzitsuak izan direla onartzen badugu ere, ahaztezina da emaitzak oso diferenteak izan direla emakumeen artean klase soziala, arraza edo nazionalitatearen arabera eta batzuentzat, batez ere emakume pobrentzat, aurrerakuntzak minimoak izan dira.

Oro har, ekintza-planetan onartzen diren neurriak emakumeek arlo sozialean eta lan-merkatuan duten rolera zuzentzen dira eta ia bakarrik helburu ekonomikoak planteatzen dituzte. Askok laburbilduz, lan-merkatuan emakumeen partaidetza handitzea lortu nahi dutela esan daiteke. Ez dira, bada, behar adina indarrez planteatu etxe barruan, familian, batzuek eta besteek jokatzen duten paper ezberdina, eta hemen aurkitzen da bereizkeria askoren jatorria. Beste era batera esanda, orain arte garatu diren aukera-berdintasunerako politikak arlo produktibotik artikulatu dira eta arlo erreproduktiboa baztertuta geratu da. Hori dela eta emakumeak baztertzen eta menperatzen dituzten oztupoek bizirik dira.

Aukera-berdintasuneko politiken onuradunak batez ere hezkuntza eta koalifikazio maila altua, informazio ona eta etxeko erantzukizunek zeharo baldintzatuta aurkitzen ez diren emakumeak dira. Berdintasunerako politikei egindako kritika horrek Europako Batasuneko araudiak emakumeen arteko ezberdintasuna handitu dezakeela erakusten digu. Neurri horiekin guztiekin, gizonekin zuzenean lehiatu ahal diren emakumeak ateratzen dira irabazten eta baztertuagoak daudenei ez die mesede nabarmenik egiten. Gainera, emakumeek lan-indar bezala duten papera azpinarratzean etxean bakarrik aritzen diren emakumeak azpibaloratuta edo ahaztuta geratzen dira.

Antzeko emaitzara heltzen gara berdintasun-politiken ondorioak eskualdeka aztertzen badira. Europa mailan mesede txikiena jaso duten emakumeak hegoaldekoak izan dira, politika horietan erabiltzen den lan kontzeptuak ez duelako

kontuan hartzen hegoaldeko emakumeen esperientzia, zeren eta inguru horietan emakume asko, kasu batzuetan emakume gehienak, oraindik lan-merkatuan sartzeke baitaude. Gainera, sarritan emakumeak sektore marginaletan kontzentratzen dira eta estatistiketatik eta ebaluazioetatik kanpo geratzen dira. Hau da, enplegu "atipikoa" edo "informala" deritzogunaren barruan aritzen dira maiz.

## 5. Etorkizunari begira

Berdintasunera ez gara oraindino iritsi, geratzen da bada zer eginik. Berdintasun legala lortzearekin batera, bereizkeria finagoak agerian geratzen hasi dira, ez bakarrik lan publikoaren esparruan, esparru pribatuan ere bai. Kontuan edukita etxeko lanen erantzukizuna eta batez ere pertsonen zainketen erantzukizuna femeninoa dela, argi dago emakumeen sarrera lan-merkatuan erraztuko duten neurriak hartzea guztiz beharrezkoa dela. Gizon eta emakumeen arteko etxeko lanaren banaketa berdinagoaz ari gara, baina, halaber, baimen parental egokien beharrez eta, noski, umeak eta zaharrak zaintzeko zerbitzu publiko hobeez ere ari gara.

Beharbada borondate politikoa falta da. Ezinbestekoa da benetan eta behingoz aintzakotzat hartzea emakumeen arazoak, zeren eta oraindik ere oso maila baxuan aurkitzen baitira politikarien lehentasunetan. Askotan emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko erakundeei leporatzen zaie erakunde sinbolikoak izatea, gobernuen marketing-eragiketa besterik ez izatea eta azpiegitura eskasa, pertsonal gutxi eta baliabide eta eskuduntza nahikoa ez izatea benetako berdintasun-politikak martxan jartzeko.

Askoren ustez ez gaude horrelako neurrientzako unerik onenean. Horren adibidea Estatu Batuetan dugu, bertan Clinton administrazioa ekintza positiboen ezabapenaren alde azaldu zen 1996an, errepublikarrak horiek debekatzearen alde azaltzen ziren bitartean. Egia da urte berean Europako Batasunak ekintza positiboen aldeko jarrera garbia erakusten zuela. Baina litekeena da Estatu pobregoak sartzean egiturazko fondoen berregituraketa gertatzea eta hori berdintasunerako politiken kalterako izan daiteke.

Europako Batasuneko ia herrialde guztietan giza eskubideak betetzeko erabiltzen diren aurrekontuak murrizten hasi dira aurrekontu-defizitari aurre egiteko asmoarekin. Eta, horrekin batera, gero eta gehiago entzuten da, batez ere politikarien ahotan, familiaren papera eta erantzukizuna indartu egin behar dela eta hori gertatzen da justu zaharren dependentsia arazo larri bihurtzen hasi den momentuan. Horrek arrisku handia dauka; emakumeentzako atzera-pauso nabarmena ekar dezake, zeren eta, rol familiarrak aldatzen ez diren bitartean, emakumeak baitira bere lan-denbora handitu beharko dutenak.

## Bibliografía

- Agacinski, S. (1998): *Política de sexos*, Taurus, Madril.
- Casas, J.I. (1989): "Evaluación de la políticas públicas de empleo que afectan a la situación de las mujeres", *Indicadores sociales para la mujer*, Instituto de la Mujer, Madril.
- Comission europeenne: *L'égalité des chances pour les femmes et les hommes dans l'Union Européenne*. Rapport annuel 1996 eta Rapport annuel 1997, Emploi et Affaires Sociales, Luxemburgo.
- Gardiner, F. (1997): "La Unión Europea: ¿hada madrina para las mujeres?", Uriarte, E. eta Elizondo A. (Koord.): *Mujeres en política*, Ariel, Bartzelona.
- Goma, R. eta Subirats, J. (Koord.) (1998): *Políticas públicas en España*, Ariel, Bartzelona.
- Hernandez, Y. eta Rodriguez, A. (1996): *Igualdad, Desarrollo y Paz. Luces y sombras de la acción internacional por los derechos de las mujeres*, Hegoa.
- Montoro, R. (1997): "La reforma del Estado de Bienestar: derechos, deberes e igualdad de oportunidades", REIS 79 zbk.
- Uriarte, E. eta Elizondo, A. (Koord.): *Mujeres en política*, Ariel, Bartzelona.